



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Sails

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 533/2024 FORU AGINDUA, 2024ko abenduaren 18koa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren irailaren 24ko 1582/2021 Foru Agindua aldatzen duena; azken honen bidez, kontabilitateko mugimenduen kapituluaren kasuan izan ezik, sozietateen gaineko zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen dira.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren irailaren 24ko 1582/2021 Foru Aginduaren bidez, kontabilitateko mugimenduen kapituluaren kasuan izan ezik, sozietateen gaineko zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautu ziren.

Egite horri dagokionez orain dela gutxi, Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-betebehar formalak arautzen dituen Erregelamendua aldatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 5eko 124/2024 Foru Dekretuaren bidez, aldaketa bat sartu da Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-betebehar formalak arautzen dituen Erregelamenduari 39 sexiesdecies artikuluan; aldaketa hori zerga-garrantzia duen beste informazio baten kapituluaren edukiari dagokio eta, hala, herri-administrazioetan integratuta dauden erakundeek euren aurrekontu orokorren kontura ematen dituzten edo herri-administrazio horietan integratuta ez dauden erakunde edo organismoen kontura kudeatzen dituzten dirulaguntzak, sorospenak edo laguntzak erregistratu beharko dituzte, baldin eta eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuari dagokion urtean ordaindu badituzte.

Aldaketa horrek berekin dakar irailaren 24ko 1582/2021 Foru Aginduaren eranskinean jasotako alta- eta aldaketa-fitxategien erregistro-eremuen eta zehaztapen funtzionalen «Zerga-garrantzia duen bestelako informazioa (E)» kapituluaren aurretik aipatutako informazioa jasotzea.

Hori dela bide eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) artikulua emandako ahalmena erabiliz, honakoa

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren irailaren 24ko 1582/2021 Foru Aginduaren aldaketa; foru agindu horren bidez, kontabilitateko mugimenduen kapituluaren kasuan izan ezik, sozietateen gaineko zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen dira

Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren egitura eta baliozkotzeari buruzko I. eranskinean Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren irailaren 24ko 1582/2021 Foru Aginduaren eranskinean jasotako honako aldaketa hauek egin dira; foru agindu horren bidez, kontabilitateko mugimenduen kapituluaren kasuan izan ezik, sozietateen gaineko zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen dira. Aldaketak hauek dira:

Bat. I. ataleko E) letran «Erakunde publikoek ordaindutako dirulaguntzak» gaiari buruzko informazioa sartu da, foru agindu honen eranskinean ezarritako zehaztapenekin bat etorritik.



Bi. 6.4 balio berri bat eransten da «LC3 Azpi-kapituluan», II. atalaren barruan, eta honako eduki hau izango du:

«6.4. Erakunde publikoek ordaindutako dirulaguntzak».

Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea

Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2025eko urtarrilaren batetik aurrerako ondorioak izango ditu.

Bilbon, 2024ko abenduaren 18an.

Ogasun eta Finantzako foru diputatua,
ITXASO BERROJALBIZ ZABALA



ERANSKINA

Erakunde publikoek ordaindutako dirulaguntzak

| Blekea | Datauak/Multzoa | Datauak/Multzoa | Datauak/Multzoa | Datauak/Multzoa | Datauak/Multzoa | Datauak/Multzoa | Datauak/Multzoa | Datauak/Multzoa | Datauak/Multzoa | Datauak/Multzoa | Azalpena | Formatua Luzera Zerrenda | |
|--------------------------------------------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|
| Coliburia | Eredua | | | | | | | | | | Altzerpen-eredia «240» balioarekin informatu behar da (Eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburua, pertsona juridikoak) | Alfanumerikoa (3) | |
| | Kapitulua | | | | | | | | | | Eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburua «6» balioarekin informatu behar da (Tributu-eragina duen bestelako informazioa) | Alfanumerikoa (2) | |
| | Azpkapitulua | | | | | | | | | | «6.4» balioarekin informatu behar da (Erakunde publikoek ordaindutako dirulaguntzak) | Alfanumerikoa (3) | |
| | Eragiketa | | | | | | | | | | Eragiketa-mota | Alfanumerikoa (3) LC4 | |
| | Bertsioa | | | | | | | | | | Erabilitako eskemaren bertsioa identifikatzea | Alfanumerikoa (5) LC0 | |
| | Ekitaldia | | | | | | | | | | Ekitaldia | Zenbakizkoa (4) | |
| | Zergapekoa | | | | | | | | | | Zergapekoaren IFZ | IFZ formatua (9) | |
| | | | | | | | | | | | | Zergapekoaren abizenak eta izena edo sozietate-izena edo izendapen sozial osoa | Alfanumerikoa (120) |
| | | | | | | | | | | | | Atortuaren IFZ | IFZ formatua (9) |
| | | | | | | | | | | | | Atortuaren lotutako herrialdearen kidea | Alfanumerikoa (2) (ISO 3166-1 alpha-2 codes) L1 |
| Erakunde Publikoak Dirulaguntza (1-10.000) | | | | | | | | | | | Egoitza dagoen herrialdean identifikazio-mota ezartzeko gakoa | Alfanumerikoa (2) L2 | |
| | | | | | | | | | | | Identifikazio-zenbakia egoitza dagoen herrialdean | Alfanumerikoa (20) | |
| | | | | | | | | | | | Atortuaren abizenak eta izena edo sozietate-izena edo izendapen sozial osoa | Alfanumerikoa (120) | |
| | | | | | | | | | | | Urteko zenbaketako guztira | Hamartarra (12,2) | |